BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

3640

AKORDIOA, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren artean hitzartutako kudeaketa-gomendioari buruzkoa, lehentasunez EAEko langabetuei zuzendutako prestakuntza-programazioa gauzatzeko dena.

Alde batetik, Juan Maria Aburto Rique jauna, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko lehendakari den aldetik.

Eta bestetik, Cristina Uriarte Toledo andrea, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,

BIEK ERE HONAKO HAU ADIERAZTEN DUTE:

Lehenengoa.– Enpleguari buruzko abenduaren 16ko 56/2003 Legearen 26. artikulua enplegurako lanbide-heziketaren lege-esparruari buruzkoa da, eta, artikulu horretan ezartzen denez, enplegurako prestakuntzako azpisistema osatzen duten prestakuntza-ekintzen helburuak honako hauek dira: gaitasun eta kualifikazio profesionalak eskuratzea, hobetzea eta etengabe eguneratzea, biztanleria aktiboaren bizi osoko prestakuntza sustatzea, eta pertsonen, enpresen, lurraldeen eta ekoizpen-sektoreen beharrizanak uztartzea.

Halaber, Enpleguari buruzko Legearen 19 quater artikuluak, Enplegu Zerbitzu Publikoek langabetuentzako prestatutako zerbitzu-katalogoaren barruan, honako hau jasotzen du: «Enplegurako lanbide-prestakuntzako ekintzak eskainiko dira; ekintza horiek Profesionaltasun Ziurtagirien Errepertorioaren barruan egiaztapen ofiziala izango dute, baldin eta Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalari atxikita badaude. Halaber, egindako prestakuntzaren barruan, lanekoak ez diren praktikak sustatuko dira».

Bigarrena.– Martxoaren 23ko 395/2007 Errege Dekretuak, enplegurako lanbide prestakuntzaren azpisistema arautzekoak, lan-alorrean eskumendun diren administrazioei agintzen die modulukako prestakuntza-eskaintza bat ezartzeko, profesionaltasun-ziurtagiriak lortzeko bidea eman eta prestakuntza eskaintza lan-merkatuaren eta sektore produktiboen beharrizan aldakorretara egokituko duena.

Errege-dekretu horrek, autonomia-erkidegoen esparrurako, zenbait bide arautzen ditu prestakuntza-eskaintzaren programazioak ezarri eta kudeatzeko, eta bide horietako bat da zentro propioen bidez garatzen dena. Alde horretatik, zentro propioak dira, Erreferentzia Nazionaleko Zentroak, titulartasun publikoko lanbide-heziketako zentro integratuak, eta Herri Administrazioaren gainerako zentroak, baldin eta enplegurako lanbide-prestakuntza emateko instalazio eta ekipamendu egokiak badituzte (23.2 eta 9.1a artikuluak).

Hirugarrena.– Martxoaren 11ko 4/2011 Lege Organikoak (Ekonomia Sostengarriari buruzko Legearen osagarriak) bosgarren xedapen gehigarria erantsi zion ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoari, Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzkoari. Bada, hain zuzen ere, bosgarren xedapen gehigarri horrek arautzen du hezkuntza- eta lan-arloan eskumendun diren herri administrazioek prozedura bat ezarri behar dutela hezkuntza-sistemako lanbide-heziketa irakasteko baimena duten zentroek aukera izan dezaten, araututako baldintzak betetzen badituzte, enplegurako lanbide-heziketako

ikasketak ere emateko, eta, horrez gainera, arautzen du hezkuntza-sistemako lanbide-heziketa eta enplegurakoa modu integratuan eskaintzen duten funts publikodun zentroek aurrekontu baliabideak eskuratzeko aukera izan behar dutela beren enplegurako prestakuntza-ekintzak finantzatzeko, betiere hezkuntza- eta lan-arloko administrazio eskudunek adosten dituzten lankidetza mekanismoekin bat etorriz.

Laugarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatu, eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuak, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari esleitzen dio enplegu-politika, baita enplegurako lanbide-prestakuntzaren azpisistema ere.

Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailari atxikirik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, besteak beste, eginkizun hauek ditu: enpleguari, enplegurako prestakuntzari eta autoenpleguaren sustapenari buruzko programak kudeatzea eta enpresak sortzea, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari buruzko urriaren 13ko 3/2011 Legearen 3.b artikuluak dioenarekin bat etorriz. Enplegurako prestakuntzaren barruan, eskaintzaren prestakuntzari dagokionez, prestakuntza-ekintzak daude, lanik gabeko langileei batez ere zuzenduak.

Bosgarrena.– Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen ditu apirilaren 9ko 193/2013 Dekretuak, eta arau horrek xedatzen duenaren arabera, sail horri dagokio Lanbide Heziketako Euskal Plana garatu, aplikatu eta eguneratzea, horretarako beharrezkoak diren neurriak hartuta, eta, halaber, hezkuntza-sisteman, prestakuntza bizitza osoan zehar hartzeko edo handitzeko bidea emango diguten lanbide-heziketako edo etengabeko ikaskuntzako politikak diseinatzea, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari esleitutako eskumenen kaltetan izan gabe.

Seigarrena.– Jaurlaritzaren Kontseiluak 2011ko ekainaren 21ean onartu zuen Lanbide Heziketako Hirugarren Euskal Planak nahiz Bizialdi osoko ikaskuntzari buruzko Lege Proiektuak azpimarratzen dutenez, bi dokumentu horietan aldarrikatzen den sistema bateratu edo integratuaren funtsezko ezaugarrietako bat da Lanbide Heziketako zentro publiko eta pribatuen sare bat ehundu beharra. Hala, sare horrek helburu izan behar du hezkuntza-sistemako zentro horien prestakuntza-eskaintzan txertatzea lanean dauden langileei eta lanik gabe daudenei zuzendutako prestakuntza-jarduerak.

Zazpigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko langabetuek kualifikazioaren arloan dituzten beharrizanei erantzuteko, eta eskuragarri dauden baliabide publikoak eraginkortasunez erabili eta optimizatzeko, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak prestakuntza-ekintzen programak sustatzen dituzte, langileek profesionaltasun-ziurtagiriak eskuratu ditzaten, zehazki Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren mendeko lanbide-heziketako zentro publikoen sarean.

Hartara, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarekin lankidetzan, lan-merkatuaren egoera aintzat hartuta, eta enpresa-sarearen beharrizanak eta egun dauden zentro publikoen sarearen prestakuntza-gaitasuna ikusita, Lanbidek Euskal Autonomia Erkidegoan bertako administrazioaren berezko zentroekin garatu beharreko prestakuntza-ekintzen plangintza prestatu du, betiere Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 15. artikuluan xedatutakoaren bat etorriz. Hona hemen plangintza hori arautuko duten

KLAUSULAK

Lehenengoa.– Xedea.

Akordio honek arautzen duen kudeaketarako gomendioaren xedea da Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren titulartasunpekoak diren prestakuntza-zentroek prestakuntza programazio bat egitea, lehentasunez langabetuei zuzenduta egongo dena (ikusi akordio honen I. eranskina).

Gomendio honen xede den programazioa osatzen duten prestakuntza-ekintzak 2013ko ekitaldian hasi, eta 2014ko ekitaldian bukatuko dira.

Bigarrena.– Prestakuntza-eskaintzaren plangintza egitea.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Heziketa eta Ikaskuntza Zuzendaritzak, Enplegurako Prestakuntza Zuzendaritzak eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzukoak, eskuratutako baliabideak erabiliz, kudeaketarako gomendioaren akordio honetan adierazten den prestakuntza-eskaintza diseinatu dute, lehentasunez Euskal Autonomia Erkidegoan lanik gabe dauden langileei zuzendua izango dena, eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren mende dauden lanbide-heziketako prestakuntza-zentro publikoetan gauzatuko dena. Prestakuntza-eskaintza horrek bi xede ditu: batetik, Euskal Autonomia Erkidegoan lanik gabe dauden pertsonen kualifikazio-beharrizanei erantzutea, eta, bestetik, eskuragarri dauden baliabide publikoak optimizatzea.

Preskuntza-eskaintza hau ezartzeko, EAEko lurraldeetako eta eskualdeetako lan-merkatuaren eta industria-ehunaren egoera hartu dira kontuan, bai eta enplegurako hezkuntza eremutik eta lanbide-heziketatik eskainitako lanbide-kualifikazioetatik dagoen prestakuntza-eskaintza orokorra ere, eta, baita ere, ikastetxe publikoen sarea eta haien prestakuntza-ahalmena, profesionaltasun-ziurtagiriak aurretiaz identifikatu ondoren, eta horiek emateko, zentroak instalazioak, ekipamenduak eta irakasleak dituzte.

Hirugarrena.– Prestakuntza-programazioa eta hartarako diru-dotazioa.

Akordio honetako I. eranskinean adierazten da zer programazio egingo duten EAEko hiru lurraldeetako zentro publikoek, bai eta hartara bideratutako diru-dotazioa, prestakuntza-ekintzen eta zentroen arabera banakatuta.

Gomendio honetako prestakuntza-programazioa finantzatzeko ezarri den kreditua 5.499.000 eurokoa da, guztira. Diru-zenbateko horren % 60, hau da, 3.299.400 euro, 2013ko aurrekontuaren kargura izango dira, eta % 40a, hau da, 2.199.600 euro, 2014ko konpromiso-kredituaren kargura.

Laugarrena.– Alta ematea Estatuko Prestakuntza Zentro eta Entitateen Erregistroan.

Akordio honetako I. eranskinean adierazten den programazioan parte hartzen duten zentroek alta emanda izan behar dute, emango duten espezialitate bakoitzerako, enplegurako lanbide heziketaren azpisistemari dagokion Estatuko Prestakuntza Zentro eta Entitateen Erregistroan. Kreditatze edo egiaztapen horrek eragin osoa izango du, harik eta prestakuntza-zentro eta -entitateen euskal erregistroa eratzen den arte. Hura eratzen denean, euskal erregistroaren araudiak xedatzen dituen eskakizunetara egokituko dira egiaztapenak.

Bosgarrena.– Harreman zuzena izatea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta lanbide heziketako zentroen artean.

Prestakuntza-programazio hori emateko, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak zuzeneko harremana izango du programazioan dauden prestakuntza-zentroekin. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren antolaketa ekonomiko-finantzarioarekin bat etorriz, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ordainduko du prestakuntza-ekintza bakoitza emateagatiko dotazioa, aipatutako sailaren lurralde-ordezkaritzetako kontuetan. Lehen ordainketa, diru-zenbatekoaren % 60, 2013ko ordainketa-kredituaren kontura ordainduko du, prestakuntza-ekintzak abiarazten direnean, eta 2014. urtean ordainduko du gainerako % 40a, urte horretako konpromiso-kredituaren kontura.

Seigarrena.– Prestakuntzaren hartzaileak.

1.– Programazio honetako prestakuntza-ekintzetan honako hauek parte har dezakete:

a) Lehentasunez, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda dauden langabetuek. Prestakuntza jasotzen hasten diren pertsona guztien ehuneko 60 izango dira, gutxienez.

b) Lehentasunik gabe, lanean egonik hala eskatzen duten langileek. Prestakuntza jasotzen hasten diren pertsona guztien ehuneko 40 izango dira, gehienez ere.

2.– Eskaintzen diren prestakuntza-ekintzetako partaideek horietara sartzeko eskakizunak bete behar dituzte, eta langabetu gisa izena emanda izan Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan, prestakuntzaren hasieran. Lanean ari diren langileen kasuan, dagokien eskaera aurkeztu behar dute.

Zazpigarrena.– Prestakuntza-ekintzetan parte hartuko duten pertsonen aukeraketa.

a) Prestakuntza ekintzetan parte hartuko duten pertsonen aurretiko aukeraketa bat egingo du Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, ikastaroetan parte hartzeko hautagaien artean.

Hautagaiek honela parte hartu dezakete ikastaroan:

● Ikastaroan parte hartzea eskatuz, bai eskabide bat aurkeztuta Lanbidek lurralde bakoitzean dituen bulegoen sareko bulegoren batean, bai eskabidea beteta Lanbideren www.lanbide.net web-orrian. Prestakuntza-ekintzak, haietan izena emateko epea eta eskatzaileek bete behar dituzten sarbide-baldintzak adieraziko dira web-orrian, bai eta prestakuntza-ekintza bakoitzaren xehetasunak eta ezaugarriak ere.

● Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Orientazio Zerbitzuek ikastaroa egitea agindu diezaieke enplegu-eskatzaileei (eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen dutenei), haien prestakuntza-ibilbidearen barruan.

● Prestakuntza Zentro Publikoen Sareak eta Sareen Orientazio Zerbitzuek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzura bidera ditzakete ikastaro-eskatzaileak.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak hautagaien eskabideak igorriko ditu zentroetara, ikastaroa emango duen zentroarekin adostutako epean, behar adinako denbora izan dezaten aukeraketa-prozesua berme guztiekin egiteko.

b) Ikastaroetako ikasleen azken hautaketa prestakuntza-zentroek egingo dute, eta instalazioetan egingo da, Lanbidetik bidalitako hautagaiak kontuan harturik, eta behar duten prestakuntza-ekintza guztietan hautaketa-proba bat sartuko da, ekintzaren aprobetxamendua ziurtatzeko eta ekintza kualifikatzaileen helburuak lortzeko ezinbesteko ezagutzen benetako maila zehazteko, eta behar izanez gero, jasoko dira, baita ere, kualifikazio profesionaleko 2. eta 3. mailetako prestakuntza-moduluetako prestakuntza eskuratzeko beharrezko ahalmenak.

Prestakuntza-zentroetako arduradunek zehaztuko dute zer bitarteko tekniko eta material baliatuko dituzten aukeraketa hori egiteko, eta beti bermatuko dute aukeratutako ikasleek bete egiten

dituztela profesionaltasun-ziurtagiriak arautzen dituzten errege-dekretuetan ezarritako sarbide eskakizunak.

Euskal Enplegu Estrategiarekin (2011-2014) eta Espainiako Enplegu Estrategiarekin (2012-2014) bat eginez, prestakuntza-ekintzan parte hartzeko baldintzak betetzen dituzten eta dagokion hautaketa-prozesua gainditzen duten langabeen artean, kolektiboen araberako lehentasuna ezarriko da, honako hurrenkera honetan:

● Lehenik eta behin, eta lehentasun-maila berberaz, lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten hauek: 30 urte arteko gazteak, batez ere prestakuntza-gabeziak dituztenak; emakumeak, langabeen kolektiboan duten pisuaren proportzioan; luzaroko langabeak; 45 urtetik gorakoak; desgaitasuna dutenak; langabezia-saria agortuta duten eta berriz profesionalki gaitzeko Prepara programan parte hartzeagatik diru-laguntzak jasotzen dituzten pertsonak; Txertaketako Errenta Aktiboaren eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren onuradunak; eta Genero Indarkeriaren biktimak.

● Bigarrenik, gainerako langabeak, oro har.

● Etendurako EEE baten eraginpean dauden langabeak, ordutegia dela-eta prestakuntza jarduerara joateko libre badaude.

Pertsona batek ezingo ditu bi ikastaro batera egin, baldin eta ikastaro horiek egiteko beste eskabide batzuk badaude eta haiek eskatu dituzten pertsonek –izan langabetuak zein lanean ari direnak– bete egiten badituzte sarbide-eskakizunak.

Aukeraketa-prozesua amaitzen denean, prestakuntza-zentroek 7 egun balioduneko epe bat izango dute haren emaitzaren berri emateko Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari.

c) Aukeratuak izan diren pertsonen eta ikastaroetan parte hartzeko erreserba-egoeran gelditzen diren pertsonen zerrendak erakutsi behar dituzte prestakuntza-zentroek beren instalazioetan, eta prestakuntza-ekintzak non, noiz eta zer ordutan egiten hasiko diren adierazi behar dute. Zerrenda hori prestakuntza-ekintzak abiarazi baino 24 ordu lehenago erakutsi behar da gutxienez, hautagaiei aldez aurretik adierazi zaien leku batean.

Iragarpen-bitarteko horiez gain, egoki iritzitako bestelako bitartekoak ere balia ditzakete prestakuntza-zentroek alderdi horien berri emateko ikasleei. Prestakuntza-zentroen kontura ordainduko dira aukeraketa-prozesuen emaitzen berri emateko bitarteko osagarri horien kostua.

Zortzigarrena.– Alderdien betebeharrak.

1.– Lanbide-heziketako zentroek honako eginkizun hauek izango dituzte:

a) Agindu zaizkien prestakuntza-ekintzak, akordio honen I. eranskinean adierazitakoak, gauzatu behar dituzte, aurreikusitako ordu eta egunetan, eta haietan gerta daitezkeen aldaketa esanguratsuen berri eman behar diote Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari.

b) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari jakinarazi behar diote prestakuntza-ekintzei ekin zaiela, akordio honen II. eranskinean adierazitako eredua erabiliz.

c) Ziurtatu behar dute prestakuntza-ekintzetan parte hartzen duten irakasleek bete egiten dituztela profesionaltasun-ziurtagiriak arautzen dituzten errege-dekretuek prestatzaileentzat ezartzen dituzten eskakizunak. Ikastaroak ematen dituen zentroko zuzendariak ziurtagiri bat egin behar du akordio honen III. eranskinean atxikitako ereduan, eskakizun horiek betetzen direla egiaztatzeko. Ikastaroen hasierako dokumentazioari atxikiko zaio ziurtagiri hori.

d) Ikasturte hasieran, gutxienez honako material hau emango diete prestakuntza-jardueretan parte hartzen dutenei:

–. Espezialitatearen eduki guztiak biltzen dituen eskuliburu bat, editatua edo euskarri informatiko batean,

–. ikastaroa behar bezala garatzeko eta behar diren idaz-mahaiko tresnak eta behar diren babes-elementuak.

e) Lanbide-informazio eta -orientazioko zerbitzuak eman behar dizkiete prestakuntza-ekintzetan parte hartu nahi duten pertsonei, haien prestakuntza-premiak eta programatu diren prestakuntza ekintzetan parte hartzeko aukerak argitzeko.

f) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak programazioko prestakuntza-ekintzak egiteko ematen duen finantzazioari buruzko publizitatea egin behar dute.

g) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko teknikariekin batera lan egin behar dute prestakuntza ekintzetan parte hartuko duten pertsonak aukeratzeko prozesuan, eta ziurtatu egin behar dute aukeratutako izangaiek bete egiten dituztela ikastaroetako sarbide-eskakizunak.

h) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko teknikariei eman behar diete haiek ikastaroen egoerari buruz eskatzen dieten informazio guztia.

i) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan entregatu behar dituzte, prestakuntza-ekintzak abiarazi ondorengo hilabeteko epean, ikastaroetan parte hartzen duten pertsonek egindako beka- eta laguntza-eskaeren dokumentuak, behar bezala beteta.

j) Prestakuntzari eta ikastaroetako parte-hartzaileei buruzko ebaluazioa sistematikoki garatuko da, aldez aurreko plangintza bati egokituta, eta bertan jasoko dira, gutxienez, modulu bakoitzerako, hura egiteko aurreikusitako egunen aurreikuspena, zein tokitan burutuko den, erabiliko diren ebaluazio-tresnak eta horien aplikazioak emango duen denbora.

Prestakuntza-moduluetan egiaztatu beharreko emaitzak horiek ezaguerei zein gaitasunetan eta ebaluazio-irizpideetan bilduriko trebetasun praktiko eta abileziei buruzkoak izango dira, eta, oro har, lanbide-gaitasunak eskuratu direla frogatzea ahalbidetu beharko dute. Gaitasun-atalen egiaztapena lortzeko, ebaluazio positiboarekin gainditu beharko dira, gai kalifikazioarekin, gaitasun atal bakoitzari loturiko prestakuntza-moduluak.

Prestatzaileek dokumentu bidez islatuko dituzte txosten batean prestakuntza-modulu bakoitzaren ebaluazioan ikasleek lorturiko emaitzak, eta bertan bilduko da aplikaturiko ebaluazio-tresnetan ikasle bakoitzak izandako jarduna, egindako zuzenketekin eta horietan lorturiko puntuazioekin.

Modulua bukatutakoan Ebaluazio Akta egingo da, parte-hartzaile bakoitzak lortutako emaitzekin. Prestatzaileak eta zentroko zuzendariak sinatuko dute akta, eta hauek jasoko ditu: ikasleen izen-deiturak, NAN edo AIZ eta emaitza («gai» edo «ez-gai»).

Lantokiko prestakuntza praktikoko modulua egiten ari diren ikasleen jarraipena eta ebaluazioa batera egingo dute prestakuntza-zentroak eta enpresak hautaturiko tutoreek. Modulu hau gainditzen duten ikasleek bi tutoreek eta enpresaren arduradunak sinaturiko ziurtagiria jasoko dute, eta ziurtagiri hori aurkeztu beharko da dagokion profesionaltasun-ziurtagiria eskatzeko.

Zentroak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari honako hauek helarazi beharko dizkio:

– Ikastaldia hasi 7 egun balioduneko epearen barruan, honako dokumentu hauek:

● Ebaluazio-plangintza.

● Erabili beharreko ebaluazio-tresnak, horiek zuzentzeko eta puntuatzeko dagozkien euskarriekin.

– Amaitu ondorengo 7 egun balioduneko epearen barruan:

● Ikasleek lorturiko emaitzak bilduko dituen dokumentazioa.

● Ebaluazio-aktak.

k) Hilero jakinarazi behar diote Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari ikasleen bajak edo uzteak, eta prestakuntza-ekintzak egitean gertatzen diren gorabehera aipagarrien berri eman behar diote.

l) Ikastaroetan libre geratu diren lekuen berri eman behar diete erreserba-egoeran dauden pertsonei, eta ziurtatu behar dute bajak betetzen dituzten pertsonek behar adinako jakintza dutela prestakuntza-ekintzaren gainerako denbora aprobetxatzeko.

m) Praktikak lantokian egiteko prestakuntza-moduluak aurreikusi behar dituzte ikastaroetan parte hartzen duten pertsona guztientzat, aintzat hartuta, betiere, zer salbuespen arautzen dituzten profesionaltasun-ziurtagiriei buruzko urtarrilaren 18ko 34/2008 Errege Dekretua aldatzen duen abenduaren 10eko 1675/2010 Errege Dekretuak eta profesionaltasun-ziurtagiriak ezartzen dituzten errege-dekretuek.

n) Akordio edo hitzarmenak egin behar dituzte, ikastaroetako ikasleek praktikak lantokian egiteko prestakuntza-modulua behar adinako bermeekin egingo dutela ahalbidetzeko.

o) Praktikak lantokian egiteko prestakuntza-moduluen tutoreak izendatu behar dituzte. Tutoreen ardura izango da enpresak izendatutako tutorearekin adostea zer prestakuntza-programa egingo den eta nola egingo den ikasleen jarraipena eta ebaluazioa. Lan horiek egiteko, ikusi eta neur daitezkeen ebaluazio-irizpideak erabiliko dira prestakuntza-programan.

p) Ikastaroetan parte hartzen duten pertsonen bertaratze-kontrola eraman behar dute.

q) Baja emango diete baztertze-egoera hauetakoren batean sartzen diren ikasleei:

– Hil batean hiru aldiz baino gehiagotan, justifikaziorik gabe ikastarora joaten ez direnei.

– Huts egindako eskolak pilatuta, prestakuntza-ekintzaren % 25ean huts egiten dutenei, horren arrazoia edozein izanda ere. Prestakuntza-jardueran parte hartzen duen ikaslea hura hasi ondoren sartu bada ikastaldian, ikastaldian sartu zenetik haren amaiera bitarteko orduekiko kalkulatuko dira ikasle horrek huts egindako eskolak.

– Prestakuntza ematen duen zentro edo erakundearen eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren iritziz, prestakuntza-ekintza aprobetxatu ez, edo portaera egokirik ez dutenei.

– Prozedura hau beteko da ikasle bat baztertzea erabakitzeko:

1.– Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak edo prestakuntza-zentro edo -erakundeak kanporatzeko arrazoiren bat hautematen badu, eta, bigarren kasuan, erakundeak idazki bidez Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuari horren berri eman ondoren Lanbidek jakinarazpena aintzat hartzen badu, Enplegurako Prestakuntzaren eta Diru-sarreren Bermerako zuzendariak kanporatze-prozedura hasteko erabakia hartu eta erabaki horren berri emango dio dagokion ikasleari. Ikaslea baztertzeko proposamena egiteko arrazoia azalduko da prozedurari ekiteko erabaki horretan, eta ikasleak bost egun naturaleko epea izango du alegazioak aurkezteko. Lanbide Euskal Enplegu

Zerbitzuko zuzendari nagusiak ebatziko du prozedura, 15 eguneko epean. Egoerak hala eskatzen badu, prestakuntza-jardueraren jarraipen egokia bermatzeko behin-behineko neurriak har daitezke baztertze-prozedurari ekiteko erabakian. Neurri horietako bat izan daiteke ikaslea behin-behineko izaeraz baztertzea ikastalditik, prozedura abiatzeko erabakia jakinarazten zaionetik prozedura ebazten den bitartean.

2.– Ebazpenaren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, jakinarazpena egiten den egunaren biharamunetik aurrera, edo bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere aurkez daiteke, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

r) Akordio honetako IV. eranskinean ageri diren kalitate-inkestak egingo dizkiete ikasleei, eta haiek bete ondorengo 7 egun baliodunetan, emaitzak igorri Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko teknikariei.

s) Lanbideko teknikariek bisitaldiak egitea erabaki dezakete intzidentziak egiaztatu eta konpontzeko, eta zentroek erraztu egin behar dituzte bisitaldi horiek.

t) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak egindako diplomak eman behar dizkiete zentroek prestakuntza-ekintzak probetxuz egin dituzten ikasleei, eta, haiekin batera, eskura ditzaketen profesionaltasun-ziurtagiriak zati metagarrietan edo osorik kreditatzeko eskabideak. Ikasleak ikastaroa emaitza positiboarekin gainditzen ez badu, berriz, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak prestatutako bertaratze-ziurtagiria emango zaio.

u) Ezarritako moduan eta dokumentazioarekin justifikatu behar dituzte ematen dituzten prestakuntza-ikastaroen gastuak. Ikastaroak amaitu eta hiru hileko epea izango dute, likidazio-eskaera Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan aurkezteko. Justifikazio hori Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzenari nagusiak beren-beregi horretarako emandako ebazpenarekin bat etorriz egingo da, eta bertan jasoko dira gastua justifikatzeko beharrezko jarraibideak eta dokumentazioa.

2.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren betebeharrak honako hauek dira:

a) Kudeaketa-gomendioko akordio honetan oinarrituta egiten diren prestakuntza-ekintzak finantzatu behar ditu.

b) Prestakuntza-zentroetako arduradunekin lankidetzan aritu behar du, prestakuntza-ekintzetan parte hartuko duten pertsonak aukeratzen. Horretarako, ezarritako aurrerapenaz eman behar ditu hautagaien zerrenda eta lehentasunak ezartzeko prozesurako informazioa, eta, halaber, aholkularitza teknikoa eman behar du prozesu horretan.

c) Gertatzen diren intzidentziak konpontzen lagundu behar die ikastaroak ematen dituzten zentroei.

d) Ahalik eta lasterren ebatzi behar ditu zentroetako arduradunek ematen dizkioten beka- eta laguntza-eskaeren espedienteak, eta, edonola ere, sei hilabeteko epea izango du horretarako, eskaerak egiten diren egunetik aurrera. Horretaz gain, indarreko arauen arabera dagozkien diru zenbatekoak ordaindu beharko dizkie prestakuntza-ekintzetan parte hartzen duten pertsonei.

e) Finantzatu egin behar ditu, hala egin behar denean, praktikak lantokian egiteko modulua egiten den enpresako tutoreak egindako lanaren kostuak, aintzat hartuta zer arautzen duen indarreko araubideak eta, zehazki, 1575/2010 Errege Dekretuak 34/2008 Errege Dekretuari, profesionaltasun-ziurtagiriak arautzekoari, eransten dio 5.bis.3 artikuluak.

f) Ikastaroak ematen dituzten zentroetako arduradunek ikastaroen emaitzak jasotzen dituzten aktak helaraziko dizkiote Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari, eta beronek gorde egin behar ditu.

g) Probetxuz osatutako prestakuntza-ekintzak egin izana egiaztatzeko diplomak egin behar ditu, bai eta ikastarora joan baina gai izatearen kalifikazioa lortu ez duten ikasleen bertaratze ziurtagiriak ere.

h) Ikastaroetan parte hartu dutenek profesionaltasun-ziurtagiria eskatzeko egiten dituzten eskabideak erregistratu behar ditu.

i) Profesionaltasun-ziurtagiriak egin eta entregatu behar ditu.

j) Prestakuntza-ekintzetako diplomen eta haiek dakartzaten profesionaltasun-ziurtagirien erregistroa eguneratu egin behar du.

Bederatzigarrena.– HEZIBI programa bultzatzea, kudeaketa-gomendioaren bitartez.

Prestakuntza-zentroek gazteentzako txandakako prestakuntza bultzatuko dute prestakuntza-gomendio honetan onartutako profesionaltasun-ziurtagirietako prestakuntza-ekintzak HEZIBI proiektu bihurtuz. Proiektu horiek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren eta Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2012ko urriaren 3ko Agindu bateratuan araututa daude eta, agindu horren bidez, gazteek prestakuntza lanarekin txandakatzeko HEZIBI programaren oinarri arautzaileak ezartzen dira.

Proiektu horiek parte hartzen duten ikasleen gutxieneko kopuruaren eta agindu horretan ezarritako gainerako baldintzen arabera kudeatuko dira.

Hamargarrena.– Gomendioaren indarraldia.

Kudeaketa-gomendioa onartutako programazioa eta dotazio ekonomikoa ikusirik hartzen da.

Hamaikagarrena.– Kudeaketa-gomendio honek ez dio beste inori lagatzen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eskumenen eta horiek gauzatzeko funtsezko elementuen titulartasuna. Hori horrela, erakunde autonomo horrek eman behar ditu kudeaketa-gomendio honen xede den jarduera material zehatzaren euskarri edo sorburu diren egintza eta ebazpen juridikoak.

Bi aldeak ados daude agiri honetan adierazten denarekin, eta horrela jasota gera dadin, kudeaketa-gomendio hau formalizatzeko tresna hau izenpetzen dute biek.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko uztailaren 31.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua,
JUAN MARÍA ABURTO RIQUE.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

I. ERANSKINA

2013KO PRESTAKUNTZA ESKAINTZA – IKASTETXE PUBLIKOAK

ARABA

LH	Kodea	Izena espezialitatea	Prestakuntza moduluak	Ordu	Ikasleak	Ikastaro-kop.	Mod. ekonom.	Ikastaroaren zenbatekoa (Eurotan)	Zentroak
AGA	AGAH0108	Baratzezaintza eta lorezaintza		560	15	1	8	67.200,00	Arkautiko Nekazaritzako BHI
AGA	AGAR0309	Ekintza lagungarriak mendien kontserbazio eta hobekuntzan		230	15	1	8	27.600,00	Mungia BHI
COM	COMM0110	Nazioarteko marketina eta salerosketa		710	15	1	11	117.150,00	Ciudad Jardín (ITB) BHI
ENA	ENAE0208	Eguzki-instalazio termikoen muntaketa eta mantentzea	MF00603_2: Eguzki-instalazio termikoen muntaketa eta mantentzea Zerbitzuan jartzea eta instalazioak jardutea. MF00605_2: Eguzki-instalazio termikoen mantentzea	210	15	1	11	34.650,00	Eraikuntza (ITB) BHI
FME	FMEC0110	Elektrodo estalizko eta TIG bidezko soldadura	MF0099_2 Arku elektrikozko soldadura, estalitako elektrodoekin	400	15	1	8	48.000,00	Mendizabala GLHBI
FME	FMEE0108	Fabrikazio mekanikoko eragiketa lagungarriak		400	15	1	8	48.000,00	Zaraobe BHI
FME	FMEH0109	Txirbil-harroketa bidezko mekanizazioa		540	15	1	8	64.800,00	Mendizabala GLHBI
HOT	HOTR0108	Oinarrizko sukaldaritza-lanak		270	15	1	8	32.400,00	Hostalaritza (ITB) BHI
HOT	HOTR0508	Tabernako eta kafetegiko zerbitzuak		560	15	1	8	67.200,00	Hostalaritza (ITB) BHI
HOT	HOTR0509	Gozogintza		420	15	1	8	50.400,00	Hostalaritza (ITB) BHI
IMA	IMAI0108	Etxeko iturgintzako eta berokuntza-klimatizazioko eragiketak		320	15	1	8	38.400,00	Eraikuntza (ITB) BHI

LH	Kodea	Izena espezialitatea	Prestakuntza moduluak	Ordu	Ikasleak	Ikastaro-kop.	Mod. ekonom.	Ikastaroaren zenbatekoa (Eurotan)	Zentroak
IMA	IMAQ0108	Industria-ekipoen mantentzea eta muntaketa mekanikoa	MF0116-2 Muntaketa eta mantentze mekanikoa	270	15	1	11	44.550,00	Mendizabala GLHBI
IMA	IMAQ0108	Industria-ekipoen mantentzea eta muntaketa mekanikoa	MF0117_2:Lerro automatizatuen mantentze mekanikoa	240	15	1	11	39.600,00	Zaraobe BHI
IMP	IMPQ0108	Ile-apainketako zerbitzu osagarriak		210	15	1	8	25.200,00	Laudio BHI
SAN	SANT0208	Osasun-garraioa		400	15	1	11	66.000,00	Francisco de Vitoria BHI
SSC	SSCS0208	Mendekoentzako arreta soziosanitarioa erakunde sozialetan		370	15	1	8	44.400,00	Samaniego BHI
TMV	TMVG0209	Ibilgailuen sistema elektriko eta elektronikoen mantentze-lanak		440	15	1	8	52.800,00	Mendizabala GLHBI
			Guztira		255	17		868.350,00	

EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA
2013ko abuztuaren 16a, ostirala
155. zk.

2013KO PRESTAKUNTZA ESKAINTZA – IKASTETXE PUBLIKOAK

BIZKAIA

LH	Kodea	Izena espezialitatea	Prestakuntza moduluak	Ordu	Ikasleak	Ikastaro-kop.	Mod. Ekonom.	Ikastaroaren zenbatekoa (Eurotan)	Zentroak
AGA	AGAH0108	Baratzezaintza eta lorezaintza		560	15	1	8	67.200,00	Itsasmendikoi Derio BHI
ELE	ELEE0109	Behe-tentsioko instalazio elektrikoen muntaketa eta mantentzea		840	15	1	11	138.600,00	Andra Mari BHI
ELE	ELEE0109	Behe-tentsioko instalazio elektrikoen muntaketa eta mantentzea		840	15	1	11	138.600,00	SAN Jorge GLHBI
ELE	ELEM0110	Industria-automatizazioko sistemen proiektuak garatzea		550	15	1	11	90.750,00	Repelega GLHBI
ELE	ELEM0210	Industria-automatizazioko sistemak muntatzeko eta mantentzeko lanak kudeatzea eta ikuskatzea		530	15	1	11	87.450,00	Repelega GLHBI
ELE	ELES0108	Eraikinetan telekomunikazio-azpiegiturak muntatzea eta mantentzea		330	15	1	11	54.450,00	Txurdinaga-Artabe BHI
ELE	ELES0208	Eraikinetan instalazio elektroteknikoak eta telekomunikazio-instalazioak muntatzeko eragiketa osagarriak		300	15	1	8	36.000,00	Fadura GLHBI
ELE	ELES0209	Telefonia-sistemak eta datu-sare lokalen azpiegiturak muntatzea eta mantentzea		340	15	1	11	56.100,00	Tartanga GLHBI
ELE	ELES0209	Telefonia-sistemak eta datu-sare lokalen azpiegiturak muntatzea eta mantentzea		340	15	1	11	56.100,00	Txurdinaga-Artabe BHI
ENA	ENAS0110	Gasa hartzeko instalazioak martxan jartzea, ikuskatzea eta berrikustea		460	15	1	11	75.900,00	Saturnino de la Peña BHI
EOC	EOCB0108	Igeltserotza-fabrikak		410	15	1	8	49.200,00	Bizkaiko Eraikuntza (ITB) BHI

LH	Kodea	Izena espezialitatea	Prestakuntza moduluak	Ordu	Ikasleak	Ikastaro-kop.	Mod. Ekonom.	Ikastaroaren zenbatekoa (Eurotan)	Zentroak
FME	FMEC0108	Industria-tutueriako instalazioen fabrikazioa eta muntaia		450	15	1	11	74.250,00	Nicolás Larburu GLHBI
FME	FMEC0109	Metal-eraikuntzen ekoizpena		410	15	1	11	67.650,00	Nicolás Larburu GLHBI
FME	FMEC0210	Oxigas soldadura eta MIG/MAG soldadura		560	15	1	8	67.200,00	Elorrieta-Erreka Mari GLHBI
FME	FMEE0108	Fabrikazio mekanikoko eragiketa lagungarriak		400	15	1	8	48.000,00	Andra Mari BHI
FME	FMEE0208	Ekipamendu-ondasunak eta industria-makineria muntatzea eta abiaraztea		610	15	1	11	100.650,00	Andra Mari BHI
FME	FMEE0208	Ekipamendu-ondasunak eta industria-makineria muntatzea eta abiaraztea		610	15	1	11	100.650,00	Nicolás Larburu GLHBI
FME	FMEE0308	Fabrikazio mekanikoko produktuen diseinua		600	15	1	11	99.000,00	Elorrieta-Erreka Mari GLHBI
FME	FMEH0109	Txirbil-harroketa bidezko mekanizazioa		540	15	1	8	64.800,00	Barrutialde BHI
FME	FMEH0109	Txirbil-harroketa bidezko mekanizazioa		540	15	1	8	64.800,00	Iurreta GLHBI
FME	FMEH0109	Txirbil-harroketa bidezko mekanizazioa		540	15	1	8	64.800,00	Bidebieta BHI
FME	FMEH0109	Txirbil-harroketa bidezko mekanizazioa		540	15	1	8	64.800,00	Mungia BHI
FME	FMEH0109	Txirbil-harroketa bidezko mekanizazioa		540	15	1	8	64.800,00	Fadura GLHBI
FME	FMEH0109	Txirbil-harroketa bidezko mekanizazioa		540	15	1	8	64.800,00	SAN Jorge GLHBI
FME	FMEH0109	Txirbil-harroketa bidezko mekanizazioa		540	15	1	8	64.800,00	Emilio Campuzano BHI
FME	FMEM0309	Txapa prozesatzeko erreminten diseinua		600	15	1	11	99.000,00	Emilio Campuzano BHI
FME	FMEM0409	Galdaketa eta forjaketarako moldeak eta ereduak diseinatzea		610	15	1	11	100.650,00	Nicolás Larburu GLHBI
HOT	HOTR0509	Gozogintza		420	15	1	8	50.400,00	Hostalaritza (ITB) BHI
HOT	HOTR0608	Jatetxeko zerbitzuak		500	15	1	8	60.000,00	Hostalaritza (ITB) BHI
HOT	HOTR0608	Jatetxeko zerbitzuak		500	15	1	8	60.000,00	Hostalaritza (ITB) BHI
IFC	IFCD0210	Web-teknologien bidez aplikazioak garatzea		510	15	1	11	84.150,00	Txurdinaga-Artabe BHI

LH	Kodea	Izena espezialitatea	Prestakuntza moduluak	Ordu	Ikasleak	Ikastaro-kop.	Mod. Ekonom.	Ikastaroaren zenbatekoa (Eurotan)	Zentroak
IFC	IFCT0209	Sistema mikroinformatikoak		560	15	1	8	67.200,00	Zornotza GLHBI
IFC	IFCT0209	Sistema mikroinformatikoak	MF0219_2: Sistema eragileak instalatzea eta konfiguratzea. MF0220_2: Tokiko sareko elementuak ezartzea. MF0221_2: Aplikazio informatikoak instalatzea eta konfiguratzea.	360	15	1	8	43.200,00	Elorrieta-Erreka Mari GLHBI
IMA	IMAI0108	Etxeko iturgintzako eta berokuntza-klimatizazioko eragiketak		320	15	1	8	38.400,00	Saturnino de la Peña BHI
IMA	IMAQ0108	Industria-ekipoen mantentzea eta muntaketa mekanikoa		510	15	1	11	84.150,00	Zornotza GLHBI
IMA	IMAQ0108	Industria-ekipoen mantentzea eta muntaketa mekanikoa		510	15	1	11	84.150,00	Nicolás Larburu GLHBI
IMA	IMAQ0208	Makineria, industria-ekipamenduen eta ekoizpen-lerro automatizatuen plangintza, kudeaketa eta mantentzea eta muntaketaren ikuskapena egitea.		490	15	1	11	80.850,00	Nicolás Larburu GLHBI
IMA	IMAR0108	Hozte-instalazioen muntaketa eta mantentzea		420	15	1	11	69.300,00	Repelega GLHBI
INA	INAF0108	Okintza eta opilgintza		450	15	1	8	54.000,00	Hostalaritza Eskola (ITB) BHI
TMV	TMVG0209	Ibilgailuen sistema elektriko eta elektronikoen mantentze-lanak		440	15	1	8	52.800,00	Eskurtze BHI
TMV	TMVG0309	Ibilgailu automobilen indarren transmisio-sistemen eta errodaje-trenen mantentze-lanak		400	15	1	8	48.000,00	Iurreta GLHBI
TMV	TMVG0409	Motorra eta motorraren sistema osagarrien mantentze-lanak		440	15	1	8	52.800,00	SAN Jorge GLHBI
TMV	TMVL0509	Ibilgailu-pintaketa		460	15	1	8	55.200,00	Bidebieta BHI

LH	Kodea	Izena espezialitatea	Prestakuntza moduluak	Ordu	Ikasleak	Ikastaro-kop.	Mod. Ekonom.	Ikastaroaren zenbatekoa (Eurotan)	Zentroak
			Guztira		630	42		3.045.600,00	

2013KO PRESTAKUNTZA ESKAINTZA – IKASTETXE PUBLIKOAK

GIPUZKOA

LH	Kodea	Izena espezialitatea	Prestakuntza moduluak	Ordu	Ikasleak	Ikastar o-kop.	Mod. Ekonom.	Ikastaroaren zenbatekoa	Zentroak
AGA	AGAH0108	Baratzezaintza eta lorezaintza		560	15	1	8	67.200,00	Fraisoro
ELE	ELEM0110	Industria-automatizazioko sistemen proiektuak garatzea		550	15	1	11	90.750,00	Easo BHI
ELE	ELES0208	Eraikinetan instalazio elektroteknikoak eta telekomunikazio-instalazioak muntatzeko eragiketa osagarriak		300	15	1	8	36.000,00	Hernani BHI
ELE	ELES0209	Telefonia-sistemak eta datu-sare lokalen azpiegiturak muntatzea eta mantentzea		340	15	1	11	56.100,00	Armagintza Eskola
FME	FMEC0110	Elektrodo estalizko eta TIG bidezko soldadura		640	15	1	8	76.800,00	Aretxabaleta GLHBI
FME	FMEC0210	Oxigas soldadura eta MIG/MAG soldadura		560	15	1	8	67.200,00	Zuazola/Larraña BHI
FME	FMEH0109	Txirbil-harroketa bidezko mekanizazioa		540	15	1	8	64.800,00	Maqui.Herram BHI
FME	FMEH0109	Txirbil-harroketa bidezko mekanizazioa		540	15	1	8	64.800,00	Usurbil GLHBI
FME	FMEH0109	Txirbil-harroketa bidezko mekanizazioa		540	15	1	8	64.800,00	Bidasoa BHI
FME	FMEH0109	Txirbil-harroketa bidezko mekanizazioa		540	15	1	8	64.800,00	Urola IK.
HOT	HOTG0208	Turismoko zerbitzu eta produktuen salmenta		550	15	1	11	90.750,00	Zubiri BHI
IFC	IFCT0209	Sistema mikroinformatikoak		560	15	1	8	67.200,00	UNI/ Eibar-Ermua
IFC	IFCT0409	Sistema domotiko eta immotikoetan, sarbideak eta presentzia kontrolatzeko sistemetan, eta bideozaintzako sistemetan osagai informatikoak ezartzea eta kudeatzea	MF0220_3: Sarbideak eta presentzia kontrolatzeko eta bideozaintzako sistemak ezartzea eta mantentzea	220	15	1	11	36.300,00	Bidasoa BHI

LH	Kodea	Izena espezialitatea	Prestakuntza moduluak	Ordu	Ikasleak	Ikastaro-kop.	Mod. Ekonom.	Ikastaroaren zenbatekoa	Zentroak
IMA	IMAQ0108	Industria-ekipoen mantentzea eta muntaketa mekanikoa		510	15	1	11	84.150,00	Altuna BHI
IMA	IMAR0108	Hozte-instalazioen muntaketa eta mantentzea		420	15	1	11	69.300,00	Don Bosco
IMA	IMAR0408	Berotze-instalazioen muntaketa eta mantentzea		380	15	1	11	62.700,00	Tolosa BHI
IMP	IMPP0208	Higieneko, depilazioko eta makillajeko zerbitzu estetikoak		480	15	1	8	57.600,00	Monte Albertia BHI
MAM	MAMS0108	Arotzeriako elementuen instalazioa		420	15	1	11	69.300,00	Urola IK.
MAP	MAPU0108	Arrainak, oskoldunak eta zefalopodoak gizentzea		340	15	1	8	40.800,00	Mutriku BHI
SAN	SANT0208	Osasun-garraioa		400	15	1	11	66.000,00	Easo BHI
SEA	SEAG0108	Hiri- eta industria-hondakinen kudeaketa		270	15	1	8	32.400,00	Paper Eskola
SSC	SSCG0209	Komunitate-bitartekotza		340	15	1	11	56.100,00	Leizaran BHI
SSC	SSCS0108	Pertsonen arreta soziosanitarioa etxean		480	15	1	8	57.600,00	Plaiaundi BHI
SSC	SSCS0208	Mendekoentzako arreta soziosanitarioa erakunde sozialetan		370	15	1	8	44.400,00	Meka GLHBI
SSC	SSCS0208	Mendekoentzako arreta soziosanitarioa erakunde sozialetan		370	15	1	8	44.400,00	Easo BHI
TMV	TMVG0209	Ibilgailuen sistema elektriko eta elektronikoen mantentze-lanak		440	15	1	8	52.800,00	Don Bosco
			Guztira		390	26		1.585.050,00	

ERANSKINA II

LANERAKO LAN HEZIKETA (395/2007 ED)
LEHENTASUNEZ LANGILE LANGABEEI ZUZENDUTAKO LAN ESKAINTZARAKO PRESTAKUNTZA

CC-7

IKASTAROAREN HASIERAREN AKINARAZPENA

……. jaun/andreak, ……. Heziketa zentro/Entitatearen ordez ……. errolda zenbakiarekin, kokatutako Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari jakinarazten dio, ondoren identifikatutako ikastaroa hasiko dela:

Ikastaro Zenbakia:		Horas Totales:		Irakastegunak:	
Espezialitate Kodea:		Heziketa espezialitatea:			
Hasiera Data:		Hasiera ordua:		Atsedena:……-etatik ……..…..ak arte	
Amaiera Data:		Irteera ordua:		Lanbideko teknikaria:	

HOMOLOGATUTAKO IRAKASLEEN IZENEN ZERRENDA							
NAN	Izena	Lehen abizena	Bigarren abizena	Eman beharreko modulua	Orduak	Ikastaro datak	Kontratu mota

DOCENTES HOMOLOGADOS EN LABORES DE TUTORIA		
NAN	Izen-abizenak	Ordu aplikagarriak

DOCENTES HOMOLOGADOS EN OTRAS ACTIVIDADES		
NAN	Izen-abizenak	Ordu aplikagarriak

Hura, Lanerako Lan Heziketaren Azpi Sistema araupetzen duen martxoaren 23ko 395/07 Errege Dekretuarekin bat etorriz, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Zuzendaritzen Orokorrari JAKINARAZTEN ZAIO.

……20…….(e)ko ……..aren ……(a)

LANBIDEren O.E.

ZIGILUA

SIN.:

HEZIKETA ZENTROA / ENTITATEAK

ZIGILUA:

SIN.:

ALDAKETAREN BAT EGONEZ GERO, AURRETIK BAIMENA ESKATU BEHARKO DA, 395/2007 E.D.ren arabera

EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA
2013ko abuztuaren 16a, ostirala
155. zk.

III. ERANSKINA

IRAKASLEEI HEZITZAILEEN AGINDUAK BETETZEARI BURUZKO TREBAKUNTZA-ZENTROKO ZUZENDARIAREN ZIURTAGIRIA

_____ Jauna/Andrea

Zentroaren ordezkari_____

ADIERAZTEN du, 2013/---/------ zenbakiaren ekintza hezigarriaren prozesuan, irakasleek, Profesionaltasun Ziurtagiriaren Errege Lege Dekretu arautzaileen eranskinak ezarritako kondizioak beteko dituztela.

Kodea: _____

Espezialitatearen Izena: _____

Errege Lege Dekretu: _____

_____

Izen-abizenak eta Zigilua

IV. ERANSKINA

ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZAREN SISTEMAREN ESPARRUA. PRESTAKUNTZA-EKINTZEN KALITATEA EBALUATZEKO GALDERA-SORTA
ESKAINTZAREN ARABERAKO PRESTAKUNTZA (martxoaren 7ko TAS/718/2008 Agindua)

Prestakuntza-ekintzen kalitatea ebaluatzeko, nahitaezkoa da ikasle moduan parte hartu duzun ikastaroari buruz duzun iritzia jasotzea. GALDERA-SORTA HONEN GALDERA GUZTIEI ERANTZUTEKO ESKATZEN DIZUGU

Galdera-sorta honetan emandako datuak konfidentzialak dira, eta prestakuntza-ekintzen kalitatea aztertzeko erabiliko dira bakarrik

I.- PRESTAKUNTZA-EKINTZA IDENTIFIKATZEKO DATUAK
(Aurretik betetakoak edo erakunde onuradunak bete beharrekoak)

1. Espediente zk./ikastaroa		2. Ekintza-zk. (*)		3. Talde-zk. (*)	
4. Ekintzaren izena					
5. Modalitatea					
6. Ekintzaren hasiera-data					
7. Ekintzaren amaiera-data					
8. Prestakuntza ematen duen erakundea (**)					
9. Autonomia-erkidegoa (**)	EAE	10. Probintzia (**)			
11. Espezialitatea (**)					

(*) Datu horiek beharrezkoak dira bereziki lanean dabiltzan langileei zuzendutako prestakuntza-ekintzak identifikatzeko

(**) Datu horiek beharrezkoak dira bereziki langile langabetuei zuzendutako prestakuntza-ekintzak identifikatzeko

II.- PARTEHARTZAILEA IDENTIFIKATZEKO DATUAK (jarri X bat dagokion laukian)

1. Adina

2. Sexua
- 1. Emakumezkoa
- 2. Gizonezkoa

3. Gaur egungo titulazioa
- 1. Titulaziorik gabea
- 2. DBHko graduatuaren titulua/Eskola-graduatua
- 3. Batxilergoko titulua
- 4. Erdi mailako teknikari/LHko titulua
- 5. Goi-mailako teknikari/LHko titulua
- 6. Unibertsitateko lk. 1. zikloa (Diplomatura-Gradua)
- 7. Unibertsitateko lk. 2. zikloa (Diplomatura-Masterra)
- 8. Unibertsitateko lk. 3. zikloa (Doktorea)
- 9. Doktore-titulua
- 10. Beste titulazio bat (zehaztu)_____

4. Lan-egoera
- 1. Langabezian
- 2. Norberaren konturako langilea (enpresaburua, autonomoa, kooperatibista…)
- 3. Besteren konturako langilea (publikoa, pribatua)

5. Bizitokia/Laneko lekua (Adierazi probintzia)
- 1. Langabezian egonez gero, bizitokia
- 2. Lanean ibiliz gero, lantokiko lekua

7. Lanbide-kategoria (lanean dabiltzanak)
- 1. Zuzendaria
- 2. Erdi mailako arduraduna
- 3. Teknikaria
- 4. Langile kalifikatua
- 5. Langile gutxi kalifikatua
- 6. Beste kategoria bat (zehaztu) _____

8. Ikastaroaren ordutegia (lanean dabiltzanak)
- 1. Lanaldiaren barruan (8.1era joan)
- 2. Lanalditik kanpo
- 3. Biak (8.1era joan)

8.1. Ikastaroak hartzen duen lanaldiaren %
- 1. % 25 baino gutxiago
- 2. % 25etik % 50era
- 3. % 50 baino gehiago

9. Partehartzailearen enpresaren tamaina (lanean dabiltzanak)
- 1. 1-9 langile
- 2. 10-49 langile
- 3. 50-99 langile
- 4. 100-250 langile
- 5. 250 langile baino gehiago

6. Nola izan duzu ikastaro honen berri? Adierazi modu nagusia

1. Enplegu Zerbitzu Publikoa ☐
2. Prestakuntza-ibilbidea ☐
3. Nire enpresaren bidez ☐
4. Enpresa-erakunde edo sindikatuen bidez ☐
5. Hedabideak: egunkariak, irratia, internet, tel., telebista ☐
6. Besterik (zehaztu) _____ ☐

III.- PRESTAKUNTZA-EKINTZAK BALORATZEA

Baloratu ikastaroaren alderdi hauek 1etik 4rako puntuazio-eskala erabilita. Jarri X bat dagokion puntuazioan:

1 Ez nago batere ados, 2 Ez nago ados, 3 Ados nago, 4 Erabat ados nago

	1	2	3	4
1.- Ikastaroaren antolaketa	1	2	3	4
1.1.- Ikastaroa ondo antolatuta egon da (informazioa, datak eta ordutegia betetzea, materiala jasotzea)				
1.2.- Taldearen ikasle-kopurua egokia izan da ikastaroa ongi emateko				
2.- Ikastaroaren edukiak	1	2	3	4
2.1.- Ikastaroaren edukiak bat etorri dira nire prestakuntza-beharrekin				
2.2.- Teoria eta praktika ondo uztartuta egon dira				
3.- Iraupena eta ordutegia	1	2	3	4
3.1.- Ikastaroaren iraupena nahikoa izan da, zeuden helburu eta edukietarako				
3.2.- Ordutegia ona izan da ikastarora joan ahal izateko				

4.- Irakasleak/tutoreak	Irakasleak				Tutoreak			
	1	2	3	4	1	2	3	4
4.1.- Ikastaroa emateko modua edo tutore-lana lagungarri izan da ikasteko orduan								
4.2.- Emandako gaiak oso ondo ezagutzen dituzte								

	1	2	3	4
5.- Baliabide didaktikoak (gidak, eskuliburuak, fitxak…)	1	2	3	4
5.1.- Emandako dokumentazioa eta materialak ondo ulertzen dira eta egokiak dira				
5.2.- Baliabide didaktikoak eguneratuta daude				
6.- Instalazioak eta baliabide teknikoak (arbela, pantaila, proiektagailua, telebista, bideoa, ordenagailua, programak, makinak, erremintak…)	1	2	3	4
6.1.- Gela, tailerra edo instalazioak egokiak izan dira ikastaroa emateko				
6.2.- Baliabide teknikoak egokiak izan dira ikastaroko edukiak emateko (ordenagailuak, arbela, proiektagailua, telebista, makinak)				
7.- Bakarrik ikastaroa honelakoa izan bada: urrutiko ikastaroa, teleprestakuntza edo mistoa	1	2	3	4
7.1.- Tutoretza-gidek eta material didaktikoek ikastaroa erraz egiteko aukera eman dute (inprimakiak, aplikazio telematikoak)				
7.2.- Laguntza-bitarteko nahikoak egon dira (banan-banako tutoretzak, posta eta banaketa-zerrendak, telekonferentzia, biblioteka birtuala, bilatzaileak…)				

8.- Ikasitakoa ebaluatzeko mekanismoak				
8.1.- Ebaluatzeko eta autoebaluatzeko probak egon dira, eta horiek aukera eman didate zenbat ikasi dudan jakiteko	Bai		Ez	
8.2.- Ikastaroak nire prestakuntza-maila aitortzen duen egiaztagiria lortzeko aukera eskaintzen dit	Bai		Ez	

9.- Ikastaroaren balorazio orokorra	1	2	3	4
9.1.- Lan-merkatuan sartzen lagundu ahal dit				
9.2.- Lanpostuan erabil ditzakedan trebetasunak/gaitasunak neureganatzen lagundu dit				
9.3.- Ikastaroak, enpresan edo handik kanpo, lanpostuz aldatzeko ditudan aukerak hobetu ditu				
9.4.- Ezagutzak zabaldu ditut nire karrera profesionalean aurrera egiteko				
9.5.- Nire garapen pertsonalari on egin dio				

10.- Ikastaroa dela-eta, gogobetetze-maila orokorra	1	2	3	4

11.- Iradokizun edo oharrik egin nahi izanez gero, idatzi hemen, mesedez

Galdera-sorta bete den eguna	

Eskerrik asko zure laguntzagatik